



Abesbatzen kalitatea «oso altua» izan da aurtengo lehiaketan

TOLOSA ▶ Letoniako Mixed Choir
of Latvian Academy of Music
abiesbatzak eraman du sari nagusia

TEE ▶ «Letoniakoa koru izugarria
da; Japoniakoa ere maila altua
erakutsi du», dio Ana Arretxek ▶ 2,3



Letoniako Mixed Choir of Latvian Academy of Music abesbatza, saria jasotzerakoan. ANDER OTEZABAL

BALIARRAIN ▶

Garmendia irabazle Euskal Herrikoan

Lokotx-biltzen
gailendu zen segundo
bateko aldearekin ▶ 6

AMASA ▶

Bihar ekingo diete jaiei amasarrek egitarau oparoarekin

Mondeju afariarekin
hasiko dira
sanmartinak ▶ 4

VILLABONA ▶

Antzerkia «oso ondo» eta zinema «ahul» joan dira urriko kultur egitarauari dagokionez

Helduentzako zinema egitarauarekin jarraituko duela
esan du Udalak, iradokizunak «eskertuko» dituztelarik ▶ 4

LEITZA ▶

Lehen puntua Barriolarentzat ▶ 5

“Natura bezain
eraginkorra”



PEUGEOT 308
berria



TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com



39. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Aurtengoak ere «oso maila altua»

Letoniako Mixed Choir of Latvian Academy of Music abesbatzak irabazi du aurtengo lehiaketa; antolatzaileak gustura daude Lehiaketak eman duenarekin

I. TERRADILLOS - E. EZEIZA

Letoniak irabazi du Tolosako 39. Abesbatza Lehiaketa. Entzuleen esanetan, «saio oso ona egin zuen», eta entzun zutenek segituan jo zuten fabritzat. Hori erakutsi dute gainera lortutako garaipenek. Orotara, Abesbatza onenaren saria, publikoarena eta Urrezko saria polifonia eta folkloren eraman dituzte.

Tolosako 39. Abesbatza irabazi ostean, datorren urteko martxoan Debrecen (Hungaria) jokatu den Europako Abesbatza Kantuaren Sari Nagusian parte hartzeko aukera izango du Letoniako Mixed Choir of Latvian Academy of Music abesbatzak. Horrez gain, antolatzaileek dioten bezala «mundu mailako ospea» irabazi dute.

Mixed Choir of Latvian Academy of Music abesbatza 1945ean eratu zen, bere abeslariak Letoniako Musika Akademiako abesbatza zuzendari-zako eta musika pedagogiako departamentutako ikasleak dira. Abesbatzaren helburua Letoniako haur eta heldu abesbatzetako liderrak izango diren abesbatzetako abeslari gazteak osatzea da.



Letoniako Mixed Choir Of Latvian Academy of Music-ek irabazi du Tolosako 39. Abesbatza Lehiaketa; irudian, saria jasotzen. ANDER OTEZABAL

ANA ARRETXE ▶ TOLOSASAKO EGINBIDE ETXKO LEHENDAKARIA

«Letoniako abesbatza izugarria da, eta beraien egitaraua ere oso polita»

39. Abesbatza Lehiaketa bukatu da, eta dagoeneko hurrengo urtekoari, hau da, 40.ari begira daude Tolosako Ekinbide Etxean. Aurtengoak utzi dituenak aipatu ditu Ana Arretxek (Tolosa, 1969).

Urtetik urtera, maila mantentzea izaten duzue helburu nagusia. Aurtengo hori bete al da? Bai. Iaz maila oso altua izan zela esan genuen, eta aurtengo ere mantendu egin dela esan behar da.

Tolosako Ekinbide Etxean,

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Sutarako egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu 615 75 57 62ra.

beraz, gustura geratu zarete aurtengoarekin.

Oso gustura. Ez da inolako ezustekorik gertatu, guztia pentsatu bezala joan da, beraz, pozik gaude.

Letoniako abesbatzak irabazi du. Zer iruditu zaizu?

Abesbatza izugarria da. Gainera, eskaini duten egitaraua ere oso polita izan da.

Herenegun sari banaketa ekitaldia egin zenuten. Nola-koa izan zen?

Egitarau polita eskaini zuen orduan ere abesbatza irabazleak, eta baita gainerakoek ere. Beste emanaldi guztietan bezala, amaierako saioa ere jende ugari ikusi zuen. Urtero errepikatzen den bezala, jende ugari izan da Leidorren, eta hori eskertu beharra dago. **Iaz Leidor berrituan estreina-koz egin zen Abesbatza**



IÑIGO TERRADILLOS

Lehiaketa, eta akustikan izan zen hutsune handiena. Aurtengo hori konpontze aldera kontxa akustikoa jarri zen. Emaitza?

Asko hobetu da akustika. Ezin esan mailarik gorenean dagoenik, baina asko hobetu dela bai. Epaimahaiko kideek eta entzuleek hori aipatu dute, eta ez dira kexatu, beraz, seinala

ona da. Horretaz gain, itxura aldetik ere, kontxa akustikoa polita da.

Leidorren ezezik, Santa Klaran ere ohikoa den bezala saloak izan ziren. Hemen ez da akustika arazorik izaten.

Ez. Santa Klarakoa oso saio polita izan da. Pena da Santa Klaran oso jende gutxi sartzen dela. Leidorren edo Santa Kla-

ran desberdina izaten da, politagoak dira saioak Santa Klaran.

Ahots nahasietan berdinketa izan da polifonian.

Letoniarrak bezala, japoniarrak ere oso onak ziren. Hori bai, abesteko modua desberdina dute, baina oso koru ona da, eta aukeratu zuten egitaraua ere oso zaila eta ona izan zen.

Euskaldunek ez dute aurtengoan saririk jaso.

Bai, hala da. Baina saririk jaso ez duten arren, puntuazio oso onak izan dituzte, izan ere, parte hartu duten bi euskal abesbatzek 80 puntutik gora batu dituzte. Beste urte batean puntuazio horrekin postu hobea lortuko lukete ziur.

Aurtengo lehiaketako berezitasunetako bat koru gazte asko zirela izan da.

Maila altua dutela ere erakutsi dute. Asko dira kontserbatorio-etaoak, eta hori nabari da.

Hurrengo urtean 40. urteurrena izango da.

Urteurrena dela-eta, zerbait berezia prestatuko dugu, baina oraindik lantzen ari garemu kontu bat da, eta ez dago ezer erabakita. ◀

IRITZIA ▶ MIGEL ZEBERIO (KORU ZUZENDARIA)

Bidaiatzera gonbidatuak



Uzkeneko asteburu luze honetan bidaiatzera gonbidatu gaituzte, baina Tolosatik mogitu gabe. Munduko bazter askotako giroa harnastu ahal izan dugu. Bidaia zoragarri honetan ere Asia Ekialdeko irletako, Amerikako eta Europa osko jendeak guri so ere egon dira, gure berotasuna eta onarpena jasotzeko irrikaz. Mikrokosmos, herien herri, bihurtu da Tolosa egun batzuetan. Dena den, jende andan honen egitekoa eta helburua dakigun bezala kantuan lehiatzearena izan da. Hau azkenean borrokaldirio baten antzeko bihur daiteke eta jakina ondorioak ez dira guztiztat berdinak izaten.

Epaiak era desberdinetan eragin die taldeei. Klasi-fikazioaren azken tokiak betetzen dituztenek, gainontzekoekiko falta zaien aldea nabarmena izanik, gertatutakoaren zergatiak aurkitzen saiatu dira, aurrerakoan emaitza obeak nola lor daitezkeen aztertzen dute, Venezuelako Cantoria de Merida adibide. Beste batzuk, ehuneneko gutxiengatik gelditu dira saridunen artetik at. Oldenburg (Alemania) edo Cubako Sine Nominek alde garratza ezagutu dutelakoan nago. Gizakion arriskurako, demarako eta apusturako grikak hau ere ba dakar. Sail bakoitzeko hiru sarien ordena

ere, beraien arteko aldea hain laburra izanik, aize ufadaxo ahul batez aldatua gerta zitezkeen, eta balekotzat emango genuke. Estonia eta Moskuko haurren koruak, Amerikar Estatu Batuetako eta Esloveniako ahots taldeak edo Letoniako eta Japoniko abesbatzek lorturiko lehen eta bigarren postuek, zortea edo izar onen baten eragina lagungarri izan dute. Edozein delarik emaitza, gonbidatuak izan diren guztiak beren etxeetara pozik itzul ditezten merezi du bidai hau antolatatu duen TEE ko lan taldeak.

Zaletu internazionalak diote, horrelako gorengo maila artistikorik duen beste lehiaketarik ez homen dago munduan zehar. Gurean aldiz ez dirudi, dagokigun tokia aldarrikatzeko behar bezelako ahaleginik egiten denik. Komunikabideen izenean bertan aritu garen ordezkaritza txikiarekin begirune gutxi azaltzen dela esango nuke. Oihartzuna ere hala modukoa da: joan den igandeko eguerdian, etb ko teleberrietan edo espainiakoetan ez zuen batere tarterik merezi izan.

Guri dagokigunez, herriki-deei, egin dezala dagokionak ahalegin, zahar eta gazte anima dadin horrelako okasiozko txangoan partaidetza zabalago izan dadin. Herritar guztiok zubia herritik atera gabe gozatzeko argudioak izan ditzaten. Motxilarik ere ez da behar treking honetan ibiltzeko. Norbaitek gonbida ditzala herriki-ideak eta inguruetaoak paisaia eder hau behatzera.

SARIAK ▶

Denera 22 abesbatzak hartu dute parte lehiaketan. Hauetatik, Letoniako abesbatzak lortu du datorren urtean egingo den Europako Sari Nagusirako txartela.

KUTXA SARI NAGUSIA
Mixed Choir of Latvian Academy of Music (Letonia).

EUSKAL KANTU BATEN INTERPRETazio ONENAREN SARIA
Kammerkoret Nova (Noruega) - Javi Bustoren *Axuri Beltz* gatik.

HAUR ABESBATZAK
1. Girls Choir of Old Town Music House (Estonia).
2. Coro Colegio Pedagogia Musical de Moscu (Errusia).
3. Cantillon Chamber Choir (Kanada).

AHOTS TALDEAK MUSIKA PROFANOA
1. Ave Vocal Group (Eslovenia).
2. The Rose Ensemble (AEB).
3. Pegasus (Erresuma Batua).

MUSIKA SAKRATUA
1. The Rose Ensemble (AEB).
2. Ave Vocal Group (Eslovenia).
3. Pegasus (Erresuma Batua).

AHOTS NAHASIAK POLIFONIA
1. (Birentzat): Vox Gaudiosa (Japonia) / Mixed Choir of Latvian Academy of Music (Letonia).
2. Choros Amicy (Erresuma Batua).
3. Kammerkoret Nova (Noruegia).

FOLKLOREA
1. Mixed Choir of Latvian Academy of Music (Letonia).
2. Vox Gaudiosa (Japonia).
3. Choros Amicy (Erresuma Batua).

ARETO FUTBOLA ▶

Sailkapeneko lehen postuetan da Laskorain

Denboraldiko bosgarren garaipena lortu du, 4-3 Izkepot taldeari irabazi ondoren

ERREDAKZIOA

Denboraldiko bosgarren garaipena erdietsi zuen Laskorainek pasa den larunbatean Usabalen. Horitxoek Laudrioko Izkepot talde lehiakorra izan zuten bisitari, garai bateko Lo+Bederatzi «handiaren» oinordekoa eta gogotik egin behar izan zuten lan 4 eta 3 irabazteko. Sei jardunalditan hamabost puntu poltsikoratuta ikastolakoek liderren tropeltxoan jarraitzen dute.

Partida zaila izan zen, baina orekatua, jokuan nahiz gol aukeretan. Bertaraturakoen esanetan, «aurten Usabalen ikusi den hoberena ezbaierik gabe». Partida hasieran Yustos

izan zen markagailua martxan ipini zuena. Nolabala, Izkepotekoek berehala erantzun zuten eta albotik areara bikain sartutako bi baloietan horitxoek defentsan nahasmena sortu eta bi gol sartu zituzten 1 eta 2 aurreratuz. Ondoren minutu luzez egon zen neurketan 1 eta 2, baina atsedenen aurretik Telletxea eta Saldiasen gol bana sartu zuten.

Bigarren zatian gauzek bea- rean irauin zuten eta oreka izan zen berriro nagusi. Partida edozein aldera eror zatekeen. Honelaxe, azken minutuan jada, arabarrek penalti argi bat egin zuten eta Saldiasen ez zuen errukirik izan garai- penaren gola sinatzeko.

SASKIBALOA ▶

Garaipenen bidera itzuli da berriz ere TAKE

79-73 irabazi zion larunbatean UPV Arabari

ERREDAKZIOA

Azken hiru partidak galdu ostean, denboraldiko bigarren garaipena erdietsi zuen Tolosa Aralar-ek larunbatean (79-73). Horretarako, partidari buelta eman behar izan zioten, 15 puntugatik galtzen joan eta gero.

Partidaren hasiera ez zen etxeok nahi bezalakoa izan. Aurreko partidetak akatsek

jarraitzen zuten eta aurkariak ez zuen aukera alferrik galtzen utzi nahi izan. Hasiera hasieratik markagailuan aurretik jarri ziren kanpotarrak eta urduritasuna azaleratzen hasi zen harmailetan. Unibertsitatekoak eroso zebiltzan, era guztietako saskiratzeak lortuz, baina batik bat hirukoetan min handia egin zuten, aurreko partidetan gertatu den bezala.

XAKEA ▶

VI. Urdiña Txiki Saria jokatuko dute igandean

Goizean bertan edonork eman dezake izena

ERREDAKZIOA

Datorren igandean, azaroak 11, VI Urdiña-Txiki Saria jokatuko da Urdiña-Txiki elkarterean. Xake azkar erara jokatuko dute, bost minutuarekin jokalaria eta partida bakoitzeko.

09:30ean hasiko da eta goiz osoan zehar jokatuko dute. Antolatzaileek txapelketa honetan parte har dezaten dei egiten die inguruko xake zale-tuei. Jokatuko nahi duenak nahikoa du igandean Urdiña-Txiki hurbiltzearekin. <<



Ahots nahasietan, Polifonia atalean Letoniako eta Japoniako abesbatzek irabazi zuten. ANDER OTEZABAL

AMASA ▶ FESTAK

Mondeju afariak emango die hasiera sanmartinei

ERREDAKZIOA

Amasako San Martin jaiak gaur hasiko dira, ohi bezala mondeju afariarekin. Aste honetarako eta hilaren 17 eta 18ko astebururako hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Ekitaldien artean ez dira faltaکو Gazteen Eguneoak, etzi izango direnak, edo igandean ospatuko den San Martin egu-

neko herritarren arteko herri kirolak. Aurten ere amasarren eta gazteluarrena arteko lehia izango da, baina hori hilaren 17an izango da.

Bitartean, Pirritx eta Porrotx pailazoen urtero bezala frontoia beteko dute eta bakailao lehiaketa ere egingo da, aurtent hamaseigarrena. Bestalde, herri bazkaria larunbat honetan izango da.

EGITARUA ▶

AZAROAK 6, GAUR

20:30. Mondeju afaria Uxo-Toki elkarte.

AZAROAK 7, BIHAR

19:00. Suzirien jaurtiketa eta Martina sorginaren etorrera. Pintxoak Kultur Etxean.

AZAROAK 8, ETZI

06:00. Gazteen gosaria Ongi Etorri tabernan.

14:00. Gazteen bazkaria Uxo-Toki elkarte.

16:30. Soka dantza eta aurreksua plazan. Ondoren, trikitilarien erromeria.

21:00. Afaria Arantzabin.

AZAROAK 9, OSTIRALA

17:15. Pirritx eta Porrotx pailazoak. Ondoren, txokolatea.

20:00. Amasako XVI. Bakailao Lehiaketa Kultur Etxean. Ondoren, bakailaoa eta sagardoa doan.

23:30. Trikitilariak pilotalekuan.

AZAROAK 10, LARUNBATA

12:00. Asto lasterketa moztroturik.

14:00. Herri bazkaria.

22:30. Bertso jaialdia, bertsolari hauekin: Amaia Agirre, Joxe Agirre, J.M. Irazu eta Aitor Mendiluze.

AZAROAK 11, IGANDEA

10:30. Meza nagusia.

Ondoren, zaldi proba, bertsolari eta trikitilariak alaiturik.

18:00. Herri kirolak herriko gazteen artean.

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Argazki bilketa egiteko deia Otaño eskolatik

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolak aurten 25. urteurrena ospatzen du. Ospakizun horren inguruan argazki erakus-

keta bat egin nahi dute eta horretarako gurasoei zuzendu zatzaie, laguntza eskatzeko asmoz. Hain justu eskolarekin zerikusia duten argazkiak eskolara eramateko eskatzen dute. Etxean, familiakoek, eza-gunek... dituzten eskolako argazki guztiak eskolako zuzendariak eramateko eskaria egiten dute. Argazkiari atzean izena jartzeko azaltzen dute, eta ahal bada, urtea.

Pedro Mari Otaño eskolatik azaltzen dutenez, argazki guztiak ongi etorriak izango dira. Horrela, gaur egungo erakuntzan eginikoak, zein eskolara zaharrenekin eginikoak onartzen dituztela zehaztu du. Argazkiak lehenbailehen eskolara eramatea eskertzen dutela gaineratu dute.



AMASA-VILLABONA ▶ KULTURA

Urriari dagokionez, antzerkia «oso ondo» eta zinema «ahul»

Udalak helduentzako zinema programatzen jarraituko duela azaldu du eta iradokizunak «esker onez» jasoko direla

ERREDAKZIOA

Udalak urriko kultur egitarauaren balantzea egin berri du eta besteak beste, antzerki lanek jasotako erantzuna «oso ona» izan dela eta berriro eskaintzen hasi diren helduei zuzendutako zinemak hasiera «nahiko ahula» izan dutela azaldu dute.

Antzerkiari dagokionez, beraz, emanaldiek «oso harrera ona izan dute». *Xurdirin* haurren antzerkira 222 lagun joan ziren eta *Busco novio formal que marido ya tuve* helduen antzerkira, berriz, 109 lagun.

Zinema emanaldien balantzea egiterakoan, helduen zinema «nahiko ahul» hasi bada ere, haurrentzako zinearen kasuan, ikusle kopuruak gora egin du iazko datuekin alderatuta. Horrela, *Peepers* ikusten 47 lagun egon ziren, *Los Simpson*ekin 228, *Doraemonekin* 169, *Ratatouillerekin* 234 eta *Locos por el Sur*ekin 196.

Hautsi Izagirre kultur zinegotziak azaldu duenez, helduen zinemaren gaia «ez da batere erraza izango, baina mementuz behintzat ez dugu etsiko». Zinema kudeatzen duen enpresak erabakitzen du zein filma ekarri. «baina adierazi dute esker onez jasoko dituztela iradokizunak; gai hau oso sakon aztertu beharra dago, eta herritarren aholkuak ongi etorriak izango dira oso», gaineratu du. *La Jungla 4.0* ikusten 92 lagun izan ziren, *Nextekin* 52, *Salir pitandorekin* 48 eta *Hairspray* filmarekin 109.

Kantu Txapelketa arrakastatsua

Gurea aretoan Gipuzkoako Kantu Txapelketaren finalurretako bat egin zen eta jendearen erantzuna «bikaina» izan zen. «Gurea antzokia oso txiki geratu zen, 400 lagun inguru joan ziren, baina 300ek bakarrik izan zuten sartzeko aukera».

Amasako Kultur Etxean egin diren ekitaldiek ondorengoa eman dute: *Klima aldaketa eta etxebizitza* hitzaldira 15 lagun



Ez dok hiru taldeak *Larru haizetara* obra antzeztuko du. JOXEMI SAIZAR

AZAROKO EGITARUA ▶

ANTZERKIA

Azaroak 16.

Larru haizetara, Ez dok hiru taldearekin. Gurea aretoan, 22:00etan.

MUSIKA

Azaroak 23.

Bide Ertzean taldearen kontzertua. Gurean, 22:30ean.

HISTORIA

Azaroak 26.

Aritza Kultur Taldeak antolatutako historia ikastaroa. Lehenengo saioa: *Euskal Herria ante los cambios en los Estados contemporaneos*. Udalebeko balio anitzeko gelan, 19:00etan.

AIZKARDIREN MENDI ASTEA

Azaroaren 19tik 24ra.

Lau emanaldi izango dira, astelehenetik ostegunera,

20:00etan, Gurea antzokian. Azaroaren 24an mendi ibilaldia eta bazkaria egingo dute.

HAURRENTZAKO ZINEMA

Azaroak 11.

Harry Potter y la Orden del Fenix. 17:00etan. Gaztelaraz.

Azaroak 17 eta 18.

Nocturna. 17:00etan. Euskaraz.

Azaroak 25. *Azur eta Asmar*.

17:00etan. Euskaraz.

ZINEMA

Larunbatetan saioak 19:30ean eta 22:30ean. Iganetan, 19:30ean. Astelehenetan, ikuslearen eguna, 21:30ean (azaroaren 19an, 22:00etan).

Azaroak 10, 11 eta 12.

La extraña que hay en ti.

Azaroak 17, 18 eta 19.

Resident Evil: Extinction.

Azaroak 24, 25 eta 26.

El orfanato.

joan ziren, *Jordania zaldiz Arabiako Lawrenceren bidetik* diapositiba emanaldira beste hainbeste, eta kantaldira, berriz, 28 lagun.

Azaroan izango dena

Urriko balantzea egitea gain, azaroko egitaraua aurkeztu du Udalak. Antzezlana izango da,

Ez dok hiru taldeak *Larru haizetara* emango duelarik. Musika Bide ertzean talde tolosarrak jarriko du. Historiak bere lekua izango du Aritza Kultur Taldearen ikastaroarekin eta Aizkardik Mendi Astea antolatu du. Bestalde, hurrek eta helduek, bakoitzari zuzendutako zinema ikusteko aukera izango dute.

LEITZA ▶ KIROLA

Barriolak lehen garaipena lortu du

Azkeneko bederatzi tantoak jarraian egin eta gero Titin III.a menperatu zuen eta ligaxkako buruan jarri da

HARRIET BELLOSO

Modu paregabean hasi du Abel Barriolak Lau t'erdiko Txapelketa. Atzoko garaipenarekin ligaxkako lehen postuan jarri da Aimar Olaizolarekin berdinduta.

Nahiz eta 38 urte izan, Titin III. oraindik goi mailako pilotaria da eta hori oso ondo zekien leitzarrek. Gainera txapelketa honetan oso ondo moldatzen da eta garaipena lortzeko oso ondo jokatu behar zuen.

Pilotan edozer gauza gerta daiteke eta atzo horren lekuko izan ziren frontoira hurbilduta-

koak. Hasieran Barriola aurretik jarri zen markagailuan baina bere jokoa ez zen batere ona. Inongo huts egiterik gabe 10-2ko partziala lortu zuen Titinek eta 18-13 irabazten jarri zen, partida aldapa gora jarriz Barriolarentzat. Leitzakoa sakeetan espezialista da baina atzokoan puntu bakarra lortu zuen horrela. Baina orduan inork espero ez zuena gertatu zen. Denbora guztia Titinen menpe egon ondoren bederatzi tanto jarraian egin zituen garaipena lortuz eta Eibarko Astelena pilotalekua harrituta utzi. Errioxako pilotaria eta

bere entrenatzaileak aldagela bidean ezin zuen sinetsi gertatutakoa. Puntua lortzea merezi izan zuen ere baina nekatuta iritsi zen amaierara eta Barriolak oso ondo irakurri zuen hori. Hankak oraindik freskoak zituen eta urteko jokorik hobereena eginez txapelketako lehen puntua lortu zuen.

Horrelako garaipena lortu ondoren konfiantza askorekin aurre egiten dio txapelketari leitzarrek. Hurrengo partida Olaizolaren aurka izango da. Honek Irujori irabazi zion eta orain bi pelotarietako ligaxkako burua lortzeko jokatu dute.



Barriola, igandeko partidaren une batean. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

LEITZA ▶ FUTBOLA

Illunberriren aurka, 6. jarraipena jarraian

1-0 irabazi zuten leitzarrek etxean partida on baten ostean; bigarren dira orain sailkapenean

ERREDAKZIOA

Aurrera futbol taldeak bolada onari eutsi dio asteburu honetan, Illunberri taldearen aurka 1-0eko emaitzarekin irabazi ostean. Arratsalde iluna izan zen igandekoa, baina leitzarrek argia jarri zuten Arkixkil futbol zelain.

Lehen zatian bi taldeek maila ona erakutsi zuten; «oro har ongi joan zen partida, guk arriskua eta aukerak sortu genituen», azaldu du Aurrera taldeko Jon Arangoak. Atsedena-

dira berdinketarekin joan ziren aldageletara.

Bigarren zatian, berriz, etxeko gola heldu zen, Iker Bengoetxeak egin zuelarik. «Gola egin genuenetik, markagailuari eustea joan ginenean».

Garaipen honen ondoren, bigarren dira sailkapen nagusian Aurrerakoak, aei partida jarraian irabazita. Datorren jardunaldian Iruñean jokatu dute Amigo taldearen aurka. «Partida zaila izango da, jokalaririk onak ditu taldeak, baina gu konfiantzaz joango gara».

Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu



Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

• KONTABILITATEA

• ZERGAK

• NOMINAK

• KOBRANTZAK

Jarduna
administrazio zerbitzuak

Martin Ugalde Kultur Parkea
ANDOAIN
943-30 40 30
administrazio@jarduna.net

hitza ren eskutik

Pirritx eta Porrotx

PANPINAK

eta **DVDa** etxeko txikiak jolasteko



"Mari Motots"
ikuskizunaren DVDa

18€



Pirritx eta Porrotx
(motxila opari)

40€



Pirritx
(poltza opari)

20€



Porrotx
(poltza opari)

20€

Egin eskaria amaitu baino lehen
902-82 02 01

hitza

BALIARRAIN ▶ HERRI KIROLAK

Garmendia, Euskal Herriko txapelduna

Lokotx-biltze txapelketan segundo batez irabazi zuen Bilbon



Eneko Garmendia, Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuenaren. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Bilboko Casilla kiroldegian asteburuan zehar Euskal Herriko lokotx-biltze txapelketa jokatu zuten eta bertan, Eneko Garmendia irabazi zuen. «Pozik» dago baliarraindarra, «gerra ematea espero nuelako, baina irabaztea ez nuen hain argi». 6

minutu eta 36 segundotan bildu zituen 50 lokotxak, bigarrenak baino segundo bat azkarago.

Txapelketa bi txandatan jokatu zuten. Aurrenekoan, Garmendia bera, Larrañaga eta Ekisoain aritu ziren lokotx-biltzen. Eneko Garmendia zuen partaideen artean markarik

onenetakoa, irailaren 2an Herrialdeetako Txapelketan egin-dakoa. Txapeldun izan zen Garmendia, baina nahi baino huts gehiago egin zituen; berak esan bezala, «guztira, lau: kanpora bota nituen. Gainera, entrenatu naizenean saski handiagorekin aritu naiz, eta urrutia botatzen nituen».

Lokotx-biltzean berria

Aurten Gipuzkoakoa eta Herrialdeetako Txapelketa berak irabazi ditu. Berria da lokotxetan, aurtengo Baliarraingo festetan probatu baitzuen lehenik. Hauxe adierazi zuen Garmendia: «Herrialdeetako Txapelketatik ona 30 segundo hobetu dut entrenamenduetan, eta hirugarren lokotx iladatik saskiratzea lortu dut. Halere, huts gehiegi egin nuen».

Eneko Garmendia ez du gehiegi entrenatu, ez behintzat lokotx-biltzean. Datorren urtean ere parte hartuko du, «atera beharko naiz behintzat».

AMEZKETA ▶ AISIA

Upeltegietarako bidaia hilaren 17an

Arabar Errioxa, Errioxa eta Nafarroa bisitatuko dituzte egunean zehar

ERREDAKZIOA

Hilaren 17an Joxe Mari Goikoe-txeak Errioxako (Espainia) upeltegietara bidaia antolatuko du. Tolosaldekoei eta Goierrikoiei egin die deialdia.

Europako upeltegitik handiena bisitatuko dute (Bode-

gas Alcorta) eta turismo-gidari batekin joango dira. Bertan gosaria izango dute. Ondoren Logroñora joango dira eta 14:00etan bazkaria egingo dute Rioja de la Vegan. Jatetxean bazkalduko dute eta upeltegia ere ikusiko dute.

Eguraldi ona eginez gero Li-

zarra bisitatuko dute eta txarrarekin merkatal zentrura joango dira. Izena eman nahi duenak Joxe Mari Goikoeixeari deitu beharko dio, hilaren 14a baino lehen (630 85 55 00). Buelta iluntzean izango litzateke. Zehaztaperen gehiago telefonoz deituta emango dituzte.

urteurrena ▶

II. urteurrena

Gorka Manzidor Zigarán

«Ez dira betiko garai onenak, azken finean gizaki hutsak gara»

Zure etxekoek ez zaituzte ahazten

oharra ▶ Haren aldeko meza azaroaren 11n izango da, 12:00etan, Zestoako parrokian.

ZESTOA, 2007ko azaroaren 6a

hilberria ▶

Jose Kruz Altuna Iztueta
(Mertxe gure lankidearen aita)

Maizpide euskaltegikook bat egiten dugu familiarekin une latz hauetan

Maizpide Euskaltegia

LAZKAO, 2007ko azaroaren 6a

AGENDA 21 ▶

Altzon eta Amezketan herri batzarra izango da

Herrietako beharrak landuko dituzte

ERREDAKZIOA

Amezketako eta Altzoko udalek Tokiko Agenda 21 proiektuari berriz helburu diote. Etzi 19:30ean herri batzar bat egingo dute Amezketa balio anitzeko gelan. Altzon ostiralean 19:00etan bilduko dira liburutegian. Agenda 21 proiektua dela-eta osatu den ekintza planaren lehen zirraborroa aurkeztu eta herritarren artean antzeman diren hutsuneak konponbideak bilatzen saiatuko dira.

Iaz geroztik eta herritarren ekarpenak abiapuntuztat hartuta, Amezketa eta Altzoko ekintza planak definitzen aritu dira. Plan hauetan, herrian egin litezkeen ekintzak jasotuzte, bai Altzon eta baita Amezketan ere. «Baina guztiak aurrera eramatea zaila da

herri txiki hauentzat. Horregatik beharrezkoa da herritarrentzat lehentasunezkoak diren ekintzak zein diren jakitea», Tolomendik esan bezala.

Ekintza plan hauetan mota guztietako ekintzak atera dira: biztanlegoa, etxebizitzak, zerbitzuak, ekonomia, ingurumena... Hau elkarrizketa bidezko herritarren iritzia, eta herri batzarretan esandakoak ere kontuan hartuz osatu da. Ekintza plana «erabat irekia» da eta udalek herritar guztien ekarpenak jaso nahi dituzte. Herrirako etorkizunerako plangintza zehaztu nahi denez, «oso garrantzitsua da herritar guztien parte-hartzea».

Bilera aurretik ekintza plana irakurri nahi duenak, ikusgai izango du udaltxeetan. Interneten ere, www.tolomendi.net/agenda21 webgunean.

ALEGIA ▶

Txintzarrien bazkarirako txartelak salgai

Alegiko Txintzarri Abesbatza Kultur Elkartek Txintzarri Eguna egingo du hilaren 18an. Bazkaria Txintzarri izango da, 14:30ean. Txartela 35 eurokoa da eta Kafe Letamendian, Jubilatuen eta Landa Enea kafetegian daude salgai. Igandera arte erosi ahal izango dira.

ALEGIA ▶

Angel Rekalderen hitzaldia, gaur

Alegiko Azaro Kulturalaren baitan larunbata arte *Nafarroa: euskal estatua* gaiarekin loturiko panelak izango dira Kultur Etxean. 18:00etatik aurrera gai berberari loturiko liburuak egongo dira salgai, eta 19:00etan Angel Rekaldek hitzaldia emango du gaur.

AMEZKETA ▶

Oroimenari buruzko hitzaldia etzi izango da

Amezketan etzi 18:00etan Er-goneko hirugarren adinekoen lokalean hitzaldi bat izango da. Memoriak ariko dira: *Oroimen galera: nola gutxitu edo arindu gaitz hau?* izena du hitzaldiak, eta printzipioz, jubilatuei zuzendua dago. Datorren astean begiei buruzko hitzaldia izango da.

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA ▶

Final-laurdenetako puntuaziorik onena lortu du Mendiluzek

Finalurrekoetara 18 bertsolari sailkatu dira; Mendiluze, Agirre, Irazu eta Muñoa izango dira eskualdeko ordezkariak



Aitor Mendiluze eta Nahikari Gabilondo Usabal kiroledegian herenegun eginiko saioan. ESTI EZZEA

ASIER IMAZ

Tolosan jokatu zuten azken final-laurdenaren ondoren, gero eta gertuago dute Gipuzkoako 18 bertsolarik G Puntuako Finala. Herenegun Aitor Mendiluze nagusitu zen Jon Maia eta Beñat Gaztelumendiren aurretik. Hirurak hurrengo fasera sailkatu ziren. Iñaki Apalategi, Nahikari Gabilondo eta Ibai Esoain finalurrekoetatik kanpo geratu ziren.

Hilaren 17an Eskoriatzan (Gipuzkoa) jokatu dute lehen finalurrekoa. Eskualdeko bertsolariei begiratu ezker, bertan Jexux Mari Irazu larrauldarra egongo da. Hilaren 24an, berriz, Amaia Agirre billabonartarrak Oiarzunen edukiko du saioa. Abenduaren 1ean azkenik, Ordizian ariko dira Unai Muñoa berrobittarra eta Iruran bizi den Aitor Mendiluze finaleko txartelaren bila.

Saio jendetsu eta oparoa

Usabal kiroledegian 1.300 bertsotzale inguru elkartu ziren antolatzaileen esanetan. Gozatzeko asmoz gerturatu ziren denak, eta saioak oro hasetzeko adina eskaini zuen. Oholtza gainera igo ziren 6 bertsolarien buruan finalurrekoetarako sailkapena aurkitzen zen.

Jon Maia, Nahikari Gabilon-

do, Ibai Esoain, Iñaki Apalategi, Beñat Gaztelumendi eta Iruran bizi den Aitor Mendiluze mikrofonora gerturatu ziren, agurra botatzeko asmoz. Usabal handitxo ez geratzeko nahia bota zuen Esoainek; bigarren aukerarik ez dagoela Apalategik; Maiak kalkulo-festa ahazteko aldarria egin zuen. Gaztelumendik, «agur graziosoa» bota nahi zuela onartu arren, iragan astean Donostian atxilotutakoei eskaini zien saioa, soinean zeraman nikia atxilotuetako gazte baten oparia zela onartu ondoren; Mendiluzek, hurrena, doinu berezi batean kantatu zuen. Azkenik, Gabilondok abesbatzekoen doinuei hitza jartzera zetozela esan zuen.

Saioaren haseratik Jon Maia eta Aitor Mendiluze nabarmendu ziren, Beñat Gaztelumendi gaztea oso itsura ona ematen ari zen aldian. Ofizioka egin ondoren, puntuari erantzuten jarri zituen Saroi Jauregi gai jar-tzaileak. Iñaki Apalategiren erantzunek txalo zaparrada jaso zuten, Ibarretxe ertzainek atxilotuko ote zuten galderari erantzuna eman zionean. Hamarreko txikian ofizioka azken saioa egin ostean, Kartzelako saioaren txanda iritsi zen. Kartzelako gaia hauxe izan zuen: *Dagoeneko ez dakizu zer egin bera gustura egon dadin.*

Bertsoldi ederrak entzun ziren. Iñaki Apalategik burua galtzen hasi zen amamari josi zion saioa. Beñat Gaztelumendik bere azaleko koloreagatik jipoitua izaten ari denaren ahotik abestu zuen. Entzuleak harririk utzi zituen hiru bertso bota zituen Añorgako gazteak. Adituek «agian gaiari hel-ztea falta izan zaiola» esan arren, zenbait entzulek ez zuten berdin pentsatu; «saioko bertsoak» bezala izendatu baitzituzten.

Nahikari Gabilondok prostitutaren papera hartu zuen, bertso ederrak botaz. Jon Maia sortu zuen zalaparta gehien jendearen artean, pota egin ote zuen zalantza sortuaz «parkea» birritan erabili baitzuten errima bezala. Bertso

SAILKAPENA ▶

FINAL-LAURDENAK Tolosako saioa.

1. Aitor Mendiluze	511,5 puntu
2. Jon Maia	484,5 puntu
3. Beñat Gaztelumendi	468 puntu
4. Iñaki Apalategi	463 puntu
5. Nahikari Gabilondo	461,5 puntu
6. Ibai Esoain	425,5 puntu

FINALAURREAK 18 sailkatuak.

1. Aitor Mendiluze	511,5 puntu
2. Aitor Sarriegi	497,5 puntu
3. Amaia Agirre	493 puntu
4. Uxue Alberdi	482,5 puntu
5. Jexux Mari Irazu	482 puntu
6. Irigo Manzisidor	484,5 puntu
7. Jon Maia	484,5 puntu
8. Jon Martin	478 puntu
9. Iker Zubeldia	476 puntu
10. Iñaki Zelaia	476 puntu
11. Ainhoa Agirreazaldeg	474,5 p.
12. Unai Muñoa	474,5 puntu
13. Xabier Sukia	474 puntu
14. Joxe Munduate	471 puntu
15. Unai Agirre	471 puntu
16. Arkaitz Oiarzabal	469 puntu
17. Beñat Gaztelumendi	468 puntu
18. Iñaki Gurrutxaga	466,5 puntu

munduko jendeak, «poto-lap-sus» bezala ezagutzen du Maiari gertatua, «gauza bat esan nahi eta bestea esatea». Izan ere, Maiak parkearen lekuan pakea sartu nahi omen zuen.

Epailleak eta zalantzak

Amaieran, epailen txanda iritsi zen. Hauek bertsolariei emandako puntuak plazaratu zituzten, finalurrekoetara sailkatutako 18 bertsolarien izenekin batera. Tolosan jasotako puntuen arabera, Aitor Mendiluze jaun eta jabe izan zen herenegun eta final-laurdenetan, 511,5 punturekin. Saio amaieran ordea, jende multzoen artean Maia eta Gaztelumendiren postuak zalantzan jarri ziren, «zigortzeko garaian izenak pisua ote duen edo ez» hizpide zutela; Txapelketaren saltsa fitzean.

LEABURU-TXARAMA ▶

Erlaxazio tailerra osasun-kultur gunean etzi

Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutxako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko jardunaldietako hurrengo saioa etzi izango da 17:30etan Txaramako osasun-kultur gunean. Kasu honetan landuko den gaia *Erlaxazio-tailerra. Arnasten ikasiz, bizia luzatuko digu* izango da. Jardunaldi honen helburua «ondo arnastearen eta gaizki arnastearen artean dauden aldeak eta ondo arnasteak osasunarentzat izan ditzakeen mesedeak erakustea» dela jakinarazi dute antolatzaileek. Nahiz hitzaldi hauek jubilatuei zuzenduak izan heritar guztiak gonbidatuta daude.

IBARRA ▶

Bolada txarrari amaiera eman zion Ibarra FSk

Ibarra Areto Futbol taldeak garaipena lortu zuen etxean 3-2ko emaitzaz Liebana talde kantabriaren aurka. Taldeko arduradunek, «partida hau orain arteko bolada txarraren amaiera izatea» espero dutela aitortu zuten. Iragan larunbatean jokaturako partida ez zen erraza izan ibartarrentzat, hiru minutu faltan lortu baitzuten binako berdinketa hausten zuen gola.

IBARRA ▶

Ipuin kontalaria gaur 17:30ean Kultur Etxean

Udal Liburutegiak antolatuta ipuin kontalariaren saioa egongo da gaur 17:30etik aurrera Benito Izagirre kultur etxean. Saioa Lur Kortak zuzenduko du eta 4-8 urteko haurrei zuzendua egongo da.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Martin J. Iraola 2 - behea
TOLOSA • 943 67 24 48

- Ingelesa
- Frantsesa, arabiera, italiara
- Maila guztiak • Gaituriko irakasleak
- Errefortzu eskolak

Zientziak eta letrak *adin guztiak Eguneroko jarraipena *talde murriztuak

Tolosan, Berrobin eta Berastegin ematen ditugu klaseak.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alegia. Anjel Rekalde idazlea 1200 urteko konkistari buruz solasean ariko da Alegiako Kultur Etxean, Azaro Kulturalean baitan.

Alegia. Zazpi Astoren Gaietan bertso eskolak bertso afaria antolatu du azaroaren 9an Intxurre elkartearen Inigo Izagirre eta Julen Zulaikarekin. Izen-ematea, Etxeberriaren, Ixkiñan, Hilarion, Arrueneren, Kafe, Intxurre elkartearen edo Jubilatuenen 15 eurotan.

Irura. Udalak hiru ikastaroetatik bi antolatu nahi ditu: lehen sorospen tailerra; edergintza, makilaje eta kosmetika tailerra eta gozogintza. Izena emateko: udaletxean, liburutegian, 943 69 13 33 zenbakian edo kultura@irura.net helbidean.

Tolosa. Jesusen Zerbitzarien haurtzaindegiko ikasle ohien bilera azaroaren 11n izango da: meza 11:30ean komentuan eta bazkaria Uzturre sagardotegian. Izen-ematea, 943 673081 telefonoan.

Tolosa. Zezen-plazako bizilagunen afaria izango da azaroaren 10ean. Izen-ematea, ohiko lekuan.

Tolosa. Mendia eta naturaz argazki lehiaketa antolatu du Oargi mendi elkarteak. Argazkiak Tolosako Karlis argazki dendan entregatu behar dira hilaren 15erako.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
Leitza. Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Sudur gorriekin edonora

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ HITZAren eskutik, Pirritx eta Porrotx pailazoen panpinak eta 'Mari Motots' ikuskizunaren DVDa eskuratzeko aukera izango da



Pirritx eta Porrotx bezain alaiak dira pailazoen panpinak. JON URBE - ARGAZKI PRESS

ERREDAKIOA

Trapuzkoak, klasikoak, goxoak, lotara eramateko modukoak, jolaserakoak, politikak, eta Pirritx eta Porrotxen egundoko antza dutenak! Horrelakoeak dira gaurtik aurrera HITZAren eskuratu ahal izango diren panpinak. Etxeko txikienentzako opari ederra. Pirritx eta Porrotxen jan-

tzia, irribarreak, aurpegieta-ko margoak... Azken urteotan Euskal Herriko milaka eta milaka haur liluratu dituzten pailazoen berdin-berdinak dira panpinak. «Gure lehen panpinak», Porrotxek dioen bezala. Lotara edota beste edonora eramateko lagun estimatua izan ohi da panpina haur askokorentzat, eta hori jakinda era-


baki dute pailazoen panpinak ateratzea, haurrak haiekin jolas daitezten.

'Mari Motots', DVDan

Panpinak ez ezik, *Mari Motots* ikuskizunaren DVDa ere eskura daiteke jadanik HITZAren eskutik. DVDan, ikuskizunaz eta bertako abestiez gain, hainbat erreportaje ere ikus daitezke:

- PIRRITX ETA PORROTX ▶**
- HITZAren eskura daitezke gaurtik Pirritx eta Porrotx pailazoen panpinak eta *Mari Motots* ikuskizunaren DVDa.
- DVDa**
- 'Mari Motots', Mari Motots** ikuskizunaren DVDa: ikuskizuna, abestiak, bideoklipak, erreportajeak, karaokea...
▶ Prezioa: 18 euro.
- PANPINAK**
- Pirritx eta Porrotx.**
▶ Prezioa: 40 euro. Mobila opari.
- Pirritx.**
▶ Prezioa: 20 euro. Poltsa opari.
- Porrotx.**
▶ Prezioa: 20 euro. Poltsa opari.
- Mendi margolariari buruzkoa, Gamusinoen bila aritu zirenekoa, Bonbereneari buruzkoa, Saharari buruzkoa...

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maria Mujika (Sarasola sagardotegia). Familiaren partetik eta Migelen partetik.

URTE ASKOAN
Aitor Zure 2. urtebetetzean atte ama amona attuna osaba ta izoan partetik zorionak.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza Harpidedunen txokoa

HITZAko harpidedunen artean, datorren **azaroaren 13an, 21:00**etan Tolosako Leidorren **Cesaria Evorak** eskainiko duen kontzerturako **sarrera pare bat** zozketatuko dugu!

Parte hartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: **943 65 56 95**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

Cesaria Evora